

INFORMAZIO OROKORRA MIFID ZUZENTARUA



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

2007ko azaroa

1. SARRERA

Agiri honek **Finantza Tresnen Merkatuei buruzko Zuzentarauaren** — aurrerantzean, **MiFID**— alderdirik garrantzitsuenak laburbildu nahi ditu, batez ere Euskadiko Kutzaren bezeroei zuzenean eragiten dizkieten kontuetan.

MiFIDek funtsezko bi helburu ditu:

- a) Finantza-erakundeetako bezeroak babestea eta, horretarako, gutxieneko kudeaketa-arauak ezartzea.
- b) Finantza-merkatu efiziente eta integratuak sustatzea.

Zuzentaraua Europar Batasunako herrialdeetan da aplikatzekoa, eta 2007/11/01ean sartuko da indarrean.

2. BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Zuzentarauaren arabera, **MiFID** produktuak —geroago azalduko ditugu— dituzten bezeroak hiru multzotan sailkatu daitezke:

- a) **TXIKIZKAKO BEZEROAK**, finantza-produktuetan esperientzia eta ezagupen txikiak dituztenak.

Segmentu horretan sartuko dira honako hiru irizpide hauetako bi betetzen ez dituzten **PERTSONA FISIKOAK**:

- Aurreko lau hiruhilekoetan zehar bolumen esanguratsuko eragiketak egitea balore-merkatuan, hiruhileko bakoitzean batez beste 10 eragiketako maiztasunarekin.
- Haien balore-zorroko balioa 500.000 €-tik gorakoa izatea.
- Bezeroak, gauzatutako zerbitzu eta eragiketei buruzko ezagupenak behar dituen karguren bat izatea finantza-sektorean, edo iraganean gutxienez urtebetez kargu horretan aritua izatea.

ENPRESA EZ-FINANTZARIOen kasuan, segmentu horretan sartuko dira honako hiru irizpide hauetako bi betetzen ez dituztenak:

- Balantzea 20.000.000 €-koa edo handiagoa izatea guztira.
- Fondo propioak 2.000.000 €-koak edo handiagoak izatea.
- Negozio-bolumena 40.000.000 €-koa edo handiagoa izatea.

- b) **BEZERO PROFESIONALAK**

Profesionalen segmentuan honako hauek sartuko dira: aurreko hiru irizpideetako bi betetzen dituzten **PERTSONA FISIKOAK**, pertsona fisikoen eta enpresa ez-finantzarioen kasuan, eta finantzen arloan ezagupen eta eskarmentu handia duten **BESTELAKO ERAKUNDEAK**.

- c) **KONTRAKO ALDERDI AUKERAGARRIA**

Finantzetan ezagupen eta eskarmentu handia duten bezeroak dira: finantza-enpresak, inbertsiokoak...

Erantsitako taula honetan laburbildu denez, segmentu bakoitzak babes maila berezia duelako egin da sailkapena:

Inpaktua	Txikizkaria	Profesionala	Kontrako Alderdi Aukeragarria
Kontratu aurreko eta ondorengo informazioa	Bai	Bai	Kontratu ostekoa bakarrik
Egokitasun-testa, inbertsioen inguruko aholkularitza ematean	Bai	Ez	Ez
Komenigarritasun-testa, produktu konplexuak kudeatzean	Bai	Ez	Ez
Exekuzio onenaren politikaren araberako burutzapena eta demostrazioa	Bai	Bai	Ez
Bezeroen aginduak izapidetzeko printzipioak betetzea	Bai	Bai	Bai

MiFID produkturen bat kontratatuta duten bezeroei 07/11/01a baino lehen jakinaraziko die Euskadiko Kutzak zein segmentutakoak diren. Jakinarazpen hori, ondoren, **MiFID** bezero berri guztiei helaraziko zaie.

Bestalde, bezeroek aukera izango dute segmentu-aldaketa eskatzeko, baldin eta partaide izan nahi duten segmentuko baldintzak betetzen badituzte. Segmentu-aldaketak edozein sukurtsaletan edo telefono bidezko bankan eskatu ditzakete bezeroek.

3. PRODUKTU ETA ZERBITZUEN SAILKAPENA

Honela sailkatuko dira produktu eta zerbitzuak:

↳ **MiFID:**

- **INBERTSIOEN INGURUKO AHOLKULARITZA**
- **AGINDUEN BURUTZAPENA:**
 - Produktu konplexuak
 - Konplexuak ez diren produktuak

↳ **MiFID EZ DIREN PRODUKTUAK**

3.1 INBERTSIOEN INGURUKO AHOLKULARITZA

Zerbitzu hori eskuratzekotan, berariaz prestatutako dokumentuak sinatu beharko dira.

Zerbitzu horri buruzko zehaztasun gehiago nahi baduzu, jo ezazu zure aholkulariarengana.

3.2 AGINDUEN BURUTZAPENA

- **MiFID produktu konplexuak**

Produktu mota hauek sartzen dira:

- warrantak erostea
- antolatu gabeko merkatuetan baloreak erostea
- mendeko finantza-ekarpenak (Eroski, Fagor...)
- truke-aseguruak
- epe finkorako ezarpen egituratuak, nominala bermatzen ez denean.

- **Konplexuak ez diren MiFID produktuak**

- finantza-bitartekaritza
- inbertsio-fondoak
- nazioko nahiz nazioarteko antolatutako merkatuetan baloreak erostea

3.3 MiFID EZ DIREN PRODUKTUAK

Honako hauek osatzen dute multzo hori:

- pasiboko produktuek (kontu korronteek, ageriko kontuek eta tasa finko eta aldakorreko gordailuek)
- finantzaketek (berme errealeko maileguez, berme pertsonaleko maileguez eta kreditu-lineek)
- aseguruak (bizitzakoak eta ez bizitzakoek diren aseguruak eta Unit Linked direlakoek)
- inbertsio-produktuek (pentsio-fondoek eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek)

4. MERKATARITZA KUDEAKETA

Bezero-segmentuaren eta produktu- nahiz zerbitzu-topologiaren arabera merkataritza-kudeaketa bideratzeko prozedurak deskribatuko ditugu atal honetan.

4.1 INBERTSIOEN INGURUKO AHOLKULARITZA

Zerbitzu horri atxikitako bezeroei **EGOKITASUN TESTA** egingo zaie urtean behin. Bezeroaren profila finkatzea da helburua, gero produktu egokiak eskaini ahal izateko.

EGOKITASUN TESTA aholkularitzaren alor honetako merkataritza-harremanetan aplikatuko da.

EGOKITASUN TESTEan finantza-esperientziaren, aurreikusitako inbertsioaren, egoera finantzarioaren, arriskua ulertzearen eta abarren gaineko kontuak agertuko dira.

Bezeroak **EGOKITASUN TESTA** sinatu beharko du produktuak eskuratu aurretik.

4.2 TXIKIZKAKO BANKU JARDUERA

Aurreko puntuan sartzen ez diren kudeaketa guztiak sartzen dira sail honetan.

4.2.1 TXIKIZKAKO BEZEROAK (EDO ESKATZEN DUTEN PROFESIONALAK) MIFID PRODUKTU KONPLEXUAK KONTRATATZEKO

Urrats hauek emango dira oro har:

- a) Eskatutako produktuaren **KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA** jasoko dute txikizkako bezeroek eta profesionalak. Euskadiko Kutxari buruzko datu orokorrak, politika orokorren laburpenak —dokumentu honetako 5. puntua— eta kasuan kasuko produktuaren informazioa jasoko dira.
- b) Txikizkako bezeroek **KOMENIGARRITASUN TESTA** egin beharko dute **MiFID produktu konplexua** kontratatu aurretik. Produktua bezeroarentzat egokia den jakitea da test horren xedea; horretarako, haren ezagupenetan eta eskarmentuan oinarritzen da.

Berdin jokatuko da bezero profesionalekin ere, berariaz eskatzen dutenean.

KOMENIGARRITASUN TESTAk 5 urteko indarraldia izango du sinatzen denetik; horrek esan gura du epe horretan produktu bera erosteko ez dagoela testa berriro zertan egin.

- c) Testak emaitza negatiboa izaten badu, produktua ezegokia izan daitekeela adieraziko zaio bezeroari, eta, produktua erostekotan, **KOMENIGARRITASUN EZARI BURUZKO OHARRA** izeneko dokumentua sinatu beharko duela.

Urtebeteko indarraldia izango du dokumentu horrek.

- d) Bezeroak ez badu **KOMENIGARRITASUN TESTA** egin nahi, baina produktua kontratatu gura badu, **BEHAR ADINA INFORMAZIO EZ IZATERI BURUZKO OHARRA** izeneko dokumentua sinatu beharko du. Produktua berarentzat egokia den ala ez erabakitzeke daturik ez duela jakinaraziko dio bertan Euskadiko Kutxak.
- e) Produktua kontratatu ondoren, **KONTRATU ONDORENGO INFORMAZIOA** jasoko du bezeroak, aldian behin edo baldintzetan aldaketa esanguratsuak daudenean.

4.2.2 TXIKIZKAKO BEZEROAK KONPLEXUAK EZ DIREN MIFID PRODUKTUAK KONTRATATZEKO

Hona hemen merkataritza-kudeaketa orotan eman beharreko urratsak:


- a) Euskadiko Kutxak produktua ezagutzeko behar duen **KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA** emango dio bezeroari, aurreko puntuan azaldu dugunez.
- b) Bezeroak produktua kontratatu nahi badu, ezarrita dauden politikei jarraiki haren agindua exekutatzera mugatuko da Euskadiko Kutxa.
- c) Bezeroak aurreko puntuan azaldu den **KONTRATU ONDORENGO INFORMAZIOA** jasoko du.

4.2.3 MIFID EZ DIREN PRODUKTUAK

Ez ditu arautegi honek ukitzen.

4.2.4 MERKATARITZA ERAGIKETEN LABURPENA

Jarduera-eskema: egokitasuna eta komenentzia



5. EUSKADIKO KUTXAREN POLITIKAK

Zuzentzarauan jasota dagoenez, politika jakin batzuei buruzko informazioa jarri behar dute erakundeek bezeroen esku.

5.1 INTERES GATAZKETARAKO POLITIKAREN ESKULIBURUA

Bezeroei inbertsio-zerbitzuak ematean sortu daitezkeen eta haien interesen kalterako izan daitezkeen interes-gatazken berri emango duen eskuliburua izatera behartzen ditu Zuzentzarauak erakundeak.

5.2 EXEKUZIO ONENAREN POLITIKAREN ESKULIBURUA

Zuzentzarauak ezarrita duenez, exekuzio onenaren politikaren eskuliburua izan behar dute erakundeak. Bertan, aginduen exekuzio-zentroak eta beste zenbait zehaztasun (prezioa, kostua, exekuzioaren kalitatea, likidezia, bolumena, aginduaren izaera) kontuan hartuta, emaitzarik onenak lortzeko prozedurak ezartzen dira.

Aginduak eskuliburu horretako politikaren arabera bideratu direla erakutsi beharko die Euskadiko Kutxak nahi duten bezeroei.

Politika hori aztertu egin beharko da aldian behin, eta, komeni denean, behar diren neurri zuzentzaileak ezarri.

5.3 PIZGARRIEN POLITIKAREN ESKULIBURUA

Zuzentzarauaren arabera, produktu edo zerbitzu bat ematean finantza-erakundeak komisio edo zerbitzu-sariak ordaintzen edo jasotzen dituenean, bezeroak jakinaren gainean jarri behar ditu.

5.4 AKTIBOAK BABESTEKO ESKULIBURUA

Zuzentzarauak ezarrita duenez, bezero bakoitzaren aktiboak erraz bereizi behar dira gordailututa dauden tokian, beste bezeroen aktiboetatik, Entitatearenetatik eta hirugarrenenetatik.

Ondorioz, printzipio orokor hauek bete beharko ditu Euskadiko Kutxak:

- a) Bezeroaren aktiboak babestuta daudela bermatzeko beharrezko kontu eta erregistroak izango ditu jasota.
- b) Aldian behin, aktiboak gordailututa dituen hirugarren gordailuzainarekin berdinkatu beharko ditu Entitatearen erregistroak.
- c) Aktiboak babesteko hartutako neurrien laburpena gorde beharko da.

Eskuliburu horien guztien laburpena bezeroen eskura egongo da Entitatearen web orrian. Dena den, bezeroek eskuliburu osoa eskuratu nahi badute, sukurtsaletan edo telefono bidezko bankan eskatu dezakete.